

AURKIBIDEA

- 1) SARRERA
- 2) KONTSIGNATARIOEK JARDUTEKO MODUA
- 3) ERAGIKETA-SAILAREN JARDUTEKO MODUA (B.P.A.)
- 4) ITSAS KAPITAINZAREN JARDUTEKO MODUA

1) SARRERA

- a). epuertobilbao plataformaren bidez kudeatutako informazio-trukaketa guztientzako kontingentzia-prozedura aktibatuko da, sistema erabilgarri ez dagoela hauteman eta 15 minutu pasatu ondoren.
- b). epuertobilbao plataformaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroak (EAZ) aktibatuko du prozedura, epuertobilbaoren erabiltzaile guztiei mezu bat bidalita. Mezuan adieraziko du gertaera zergatik izan den eta zenbat irautea aurreikusten den.
- c). Bilboko EAZren telefonoa, 944 871 260, eskuragarri egongo da gertakariari buruzko edozein kontsulta egiteko edo informazio eskatzeko.
- d). Sistema erabilgarri ez dagoen denbora-tartean, hirugarren kontaktu-bide bat prestatuko da 608 794 425 telefono mugikorren bidez (gertakarietan soilik funtzionatuko du).
- e). Gertakaria konpondu eta gero, Bilboko EAZk mezu elektronikoko bat bidaliko du, zerbitzua berriz ezarri dela jakinarazteko.

1) KONTSIGNATARIOEK JARDUTEKO MODUA

Kontingentzia-prozedura hau aktibatzeneko abisua jaso ondoren, honela jokatuko dute:

- Bilboko EAZri G.D.B bidali behar zaio **faxez** (zenbakia: 944 871 288) BPAREN webgunean (www.bilbaoport.es). eskuragarri dauden ereduak erabiliz.

Oharrak:

- **Berehala sartuko diren** ontzien G.D.Bak bakarrik bidali behar dituzte kontsignatarioek.
- Ontzia ateratzeko baimena (**Ship's Clearance**) zuzenean eskatuko zaio Bilboko Itsas Kapitaintzari hara joanez, 944 241 416 telefonora deituz edo 944 248 057 zenbakira faxa bidaliz.
- Plataforma martxan dagoenean, **epuertobilbao-ra bidali behar da berriz** ere dokumentazio guztia, gertakarian paper-formatuan aurkeztu dena barne, ohiko zirkuituaren bidez.

2) ERAGIKETA-SAILAK JARDUTEKO MODUA

Kontingentzia-prozedura hau aktibatzeneko abisua jaso ondoren, honela jokatuko dute:

- Bilboko E.A.Ztik G.D.Baren kopia bat jasoko du faxez edo posta elektronikoz.

3) ITSAS KAPITAINTZAK JARDUTEKO MODUA

Kontingentzia-prozedura hau aktibatzeneko abisua jaso ondoren, honela jokatuko dute:

- Bilboko E.A.Ztik ontzien G.D.Bak fax edo posta elektronikoz jasotzen dituztenean, haien sarrera **baimenduko du lehenespenez**.
- Sarrera **baimendu ezean**, fax bat bidaliko zaio kontsignatarioari, ukapenaren arrazoia berariaz azalduz.
- Irteteko baimenei dagokienez, kontsignatarioari **faxez** bidaliko zaio agiria edo zuzenean **eskura** emango zaio.